


**Hamaiketako oSOSungarria:  
Elikadura ona,  
Eskola jakintsua.**





# ALIMENTACIÓN

ELIKADURA-JASANGARRITASUNAREN ALDEKO HEZKUNTZA-SAREA



[redalimentacion.org](http://redalimentacion.org)

## INFORMAZIO GEHIAGO:

**Patricia Gómez Ruiz**

hezkuntza@justiciaalimentaria.org

Tel. +34 652 392 057

### EKIMENAREN SORTZAILEAK:



### LAGUNTZAILEAK:





## ERRONKA REN ZENTZUA

### HAMAIKETAKO OSOSUNGARRIA: ELIKADURA ONA, ESKOLA JAKINTSUA

*Hamaiketako. Literalmente lo de las once. Almuerzo, tentempié, segundo desayuno... Hay muchas palabras, pero pocas tan bonitas y descriptivas como la que en euskera pone nombre a esta tradición casi universal de parar a media mañana para comer algo. Iker Morán, periodista gastronómico.*



Dokumentu honetan, Tknika zentrotik Lanbide Heziketararako bultzatutako EOIK (Erronketan Oinarritutako Ikaskuntza Kolaboratiboa) metodologian oinarritzen den lan-segida aurkituko duzu.

Haren bitartez, ikasleek mahaikideen artean ohitura osasungarriak sustatzen ikasiko dute. Horretarako, LHko bi arlo koordinatuko dira eta bien artean estrategia bat landuko dute, eskolan zein etxean hurrek ondo jatearen garrantzia eta eragina uler dezaten.

*Prozesu horren bitartez, ikasleak eta irakasleak ingurunearekin harmonian dagoen elikadura osasungarri batek duen garrantziaz eta ahalmenaz ohartuko dira, mota guztietako ezagutzak eskuratuko dituzte (elikadura gai potoloa da!), loturak egingo dituzte naturarekin, erosketa kontziente eta arduratsuagoa sustatuko dute, hondakin gutxiago sortuko dituzte, landa eremuak biziberritzen lagunduko dute, lan duinak sortuz, eta abar.*

**Haur Hezkuntzako ikastetxe batean hezkuntza-eremu eta -denbora** bat sortzea proposatzen dizuegu, elikadura eta, hain zuzen ere, eskolako hamaiketako\*\* lan-ildo gisa hartuta.

## LANBIDE-ARLO HAUEI ZUZENDUTA:

**Haur Hezkuntza (HH)**  
**Dietetika eta Nutrizioa (DN)**



IKASLEEN  
ANTOLA  
KUNTZA

### **LAN-BATZORDEAK**



**HH/** 1) Jantoki-hamaiketako batzordea;  
2) Baratze batzordea; 3) Curriculum  
batzordea



**DN/** 1) Menuen batzordea; 2) Kudeaketa-  
erosketa batzordea; 3) "Osasun bat"  
batzordea



**0** KONPROMISOA

**1** ERRONKA

**2** EDUKIA

**3** IKASPENAK

**4** INFORMAZIOAREN  
ANTOLAKUNTZA

**5** IDEIAK

**6** AURRERAPENEN AURKEZPENA

**7** LAN-PLANGINTZA

**8** LORTUTAKO EMAITZAK

**9** EBALUAZIOA

***NOR GARA***

***ZEHARKAKO IKUSPEGIAK***



**PAU  
SOAK**



0.- **KONPROMISOA** parte hartzeko, ekarpenak egiteko eta batzorde guztien lana zehatz-mehatz aztertzeko. **Pentsa ezazue zehazten dituzuen ekintza guztiak (LAN-PLANGINTZA) martxan jarri ahal izango dituzuela, praktketan edo lan egiten duzuen ikastetxean.**

1.- **ERRONKA** gelan botatzea:

2050. urtea. Gaur egungo elikadura oso prozesatua da, eta, hala, ez ditu nekazariak ekoiztako lehengaiak erabiltzen, baizik eta

 produktu prozesatuak edo finduak. Ondorioz, 1. sektorea desagertu da, eta harekin batera baratzezaintzari, arrantzari edo abeltzaintzari buruzko ezagutza guztiak galdu dira; hau da, elikaduraren oinarriari buruzko ezagutza guztiak. Egoera oso kezagarria da eta planetako bizitza ez dago bermatuta: Ez dago benetako janaririk! Elikaduraren  ondoriozko gaixotasunak gero eta ugariagoak dira, eta horri buruzko informazio asko badago ere, ez dirudi biztanleengan eragin handirik duenik. Justizian oinarritutako gizarte-ordena berri baten aldeko konpromisoa sustatzen lagunduko diguzu?

Ideia-jasa, paperean sartzeko gara:

- Zergatik iruditzen zaizue garrantzitsua problematika hau?
- Zertan lagun dezakezue zuen heziketatik?
- Nola imajinaten dituzue eskolak 10-15 urte barru?
- Nolakoak nahiko zenukete izatea zuen seme-alaben menuak?
- Nortzuk har dezakete edo hartu behar dute parte ekimen honetan?

 Bila itzazue erreferentziak... Hona hemen bat:

<https://www.ehige.eus/eu/mendialdea-ipi-hamaiketako-osasungarria/>



## 2.- **EDUKIA** Problematikara lehen hurbilketa:

Txosten interesgarriak:

 'Mi primer veneno'

 'Greenwhasig alimentario'

Ikerketak behin landuta: 1) erronkaren harira, kapituluak taldeka banatu zuen artean eta, gero, horiek besteen aurrean aurkeztu, bateratze-lana

 egiteko. 2) Solasaldi dialogiko bat egin, hau da, solasaldi bat non talde guztiek interes nagusiko gaiak lantzen dituzten erronkari aurre egiteko.

## 3.- **IKASPENAK** Ezagutzak finkatzen ditugu.

Talde bakoitzak Trivial, Kahoot edo antzeko jolas bat egingo du, maila eta espektatiba handiekin, baina ikasle guztien gaitasunetara egokituko dena: Mundu guztiak jolasten eta ikasten du!

## 4.- Behar dugun **INFORMAZIOAREN ANTOLAKUNTZA**.

4.1.- Batzorde bakoitzak bere rolari, ardurei eta edukiei buruz ikertuko du, eta horrek lagunduko dio bere proposamena eta erronkari egingo dion ekarpena zehazten. Gainera, **ikertu beharreko zenbait Item (5. orr.)** iradokiko zaizkizue, modulu/talde bakoitzerako **ikasketaren emaitzak (6. orr.)** kontuan hartuta:

Ez ahaztu   
zeharkako ikuspegiak!

*16. ORRIALDEAN AURKITUKO DITUZU. OSO GARRANTZITSUA DA HORIEK AINTZAT HARTZEA, ZURE ESKU-HARTZEA BIDERATUKO DUEN OINARRIA BAITIRA.*

	<p><b>1) Jantoki-hamaiketako batzordea.</b> <b>Parte hartzen dute:</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Zergatik hartu sasoiako eta gertuko produktuak, horrek ingurumenerako, ingururako eta eskolarako dituen onurak.</li> <li>-Urruneko produktuak harteak tokiko nekazaritzan dituen ondorioak.</li> <li>-Praktika onak hamaiketako osasungarri baterako, irakasleen, ikasle nagusien eta familien artean zabaltzeko.</li> </ul>
<p><b>Haur Hezkuntza</b></p>	<p><b>2) Baratze batzordea.</b> <b>Parte hartzen dute:</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Sasoiko eta tokiko produktuak, haur-elikadurarako egokituak.</li> <li>-Eskola ortuaren helburuak eta garapena (haurtzaroan agroekologiara hurbiltzea).</li> <li>-Agroekologia kontzeptua garatzea irakasleekin lantzeko.</li> <li>-Ereintza zuzeneko teknikak <a href="#">eskola ortua</a> garatzeko hezkuntza-tresna gisa <a href="#">🔗</a></li> </ul>
	<p><b>3) Curriculum batzordea.</b> <b>Parte hartzen dute:</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Haur hezkuntzako elikadura-hezkuntzari lotutako curriculumeko gaiak ikertzea.</li> <li>-Eskolan lantzeko jarduerak, materialak, unitate didaktikoak, tresna KITak bilatzea edo sortzea.</li> <li>-Elikadurari lotutako eta sinergiak sortzen dituzten <a href="#">eskola proiektuak</a>. <a href="#">🔗</a></li> </ul>
	<p><b>1) Menuen batzordea.</b> <b>Parte hartzen dute:</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Dieta mediterraneoaren eta Dash dietaren ezaugarriak.</li> <li>-Menu/askari osasungarri baterako osagaiak.</li> <li>-Elikagai-taldea osagai nagusi gisa.</li> <li>-Lekaleak, frutak eta barazkiak jatearen nutrizio-abantailak eta osasunean dituen ondorio positiboak.</li> </ul>
<p><b>Dietetika nutrizioa</b></p>	<p><b>2) Kudeaketa-erosketa batzordea.</b> <b>Parte hartzen dute:</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Erosketen antolakuntza: Nola, nor, nori, aurrekontua?</li> <li>-Diru-laguntzen mapatzea.</li> <li>-Eskolaren eta guraso-elkartearen rola.</li> <li>-Aliantzak beste eskola batzuekin, udalekin.</li> </ul>
	<p><b>3) 'Osasun bat' (Calvin Schwabe) batzordea.</b> <b>Parte hartzen dute:</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-'Osasun bat' kontzeptuaren garapena.</li> <li>-Ohitura osasungarrien garrantzia: Jarduera fisikoa eta nutrizioa haurtzaroan.</li> <li>-Azukre eta elikagai ultra prozesatu asko jatearen nutrizio-desabantailak eta osasunean dituen ondorio negatiboak.</li> <li>-Kontsumo osasungarri baterako gomendioak. Maiztasuna eta errazioak.</li> </ul>



Ikasketaren  
emaitzak:  
irakasleek  
betetzeko

<p><b>1) Jantoki-hamaiketako batzordea.</b> <b>Parte hartzen dute:</b></p>	<p><b>2) Baratz batzordea.</b> <b>Parte hartzen dute:</b></p>	<p><b>3) Curriculum batzordea.</b> <b>Parte hartzen dute:</b></p>	<p><b>1) Menuen batzordea.</b> <b>Parte hartzen dute:</b></p>	<p><b>2) Kudeaketa-erosketa batzordea/LPO.</b> <b>Parte hartzen dute:</b></p>	<p><b>3) 'Osasun bat' (Calvin Schwabe) batzordea.</b> <b>Parte hartzen dute:</b></p>
<p><b>Haur Hezkuntza</b></p>			<p><b>Dietetika nutrizioa</b></p>		

4.2.- Aurkikuntzak finkatzea eta karpeta partekatu batera igotzea, parte-hartzaile guztiek hura ikus dezaten. Horrela gainontzeko batzordeek eskuratutako ezagutza landu eta barneratu ahal izango dute eta hausnarketa egunkari kolektiboa osatu ahal izango dugu:

-Batzordearen izena:

-Ikertutako itemaren deskribapena:

-Ikertutako itemaren azterketa:

-Ikertutako itemaren balorazioa/ondorioak:

-Taldekako lanean sortutako gatazkak eta emozioak:

5.- Batzorde bakoitzak sortutako **IDEIAK**.

- 
- 
- 
- 

6.- Batzorde bakoitzaren **AURRERAPENEN AURKEZPENA**.

Talde bakoitzak aurkezten du, eta, solasaldi dialogikoari berriz helduz, Hamaiketako **oSOSungarria** lantzeko moduari buruz eztabaidatzen du eta ekarpenak egiten ditu, eskolan eta edozein espaziotan.

Garrantzitsua da ikasle guztiek iritzia eman eta ekarpenak egin ditzaten, bere taldea zein den ere. Denok jaten dugu bost bider egunean, asko dakigu!

## 7.- Batzordekako LAN PLANGINTZA.

Ez ahaztu zeharkako ikuspegiak!

<b>BATZORDEAK (HH)</b>	<b>Erronkari erantzuteko EKINTZAK/EGINKIZUNAK/ESTRATEGIAK. Kontuan hartu praktikan gauzatu ahal izango dituzuela, beraz, eman behar duen denbora.</b>	<b>DENBORAK 2023-2024</b>
<p><b>1) Jantoki-hamaiketako batzordea</b></p>	<p>- - - - -</p>	
<p><b>2) Baratze batzordea</b></p>	<p>- - - - -</p>	
<p><b>3) Curriculum batzordea</b></p>	<p>- - - - -</p>	

## 7.- Batzordekako LAN PLANGINTZA.

Ez ahaztu zeharkako ikuspegiak!

<b>BATZORDEAK (DN)</b>	Erronkari erantzuteko EKINTZAK/EGINKIZUNAK/ESTRATEGIAK. Kontuan hartu praktikan gauzatu ahal izango dituzuela, beraz, eman behar duen denbora.	<b>DENBORA</b> <b>2023-2024</b>
<p><b>1) Menuen batzordea</b></p>	<p>- - - - -</p>	
<p><b>2) Kudeaketa-erosketa batzordea</b></p>	<p>- - - - -</p>	
<p><b>3) 'Osasun bat' batzordea</b></p>	<p>- - - - -</p>	

## 7.1.- Gelan esku hartzea, segida

[1] Ekintza-planerako ideiak: [¿De dónde son estas naranjas? Situación de aprendizaje para EI](#)



## 8.- LORTUTAKO EMAITZAK

Bere proposamenaren garapen-prozesuari eta erronkaren emaitzari dagokienez. Erronkaz beraz gain, garrantzitsua da erronka horretan ikasitakoari buruz hausnartzea, norberaren aurkikuntzak, zailtasunak eta abar barne.

9. puntuak ariketa emozionalago honekin lagunduko dizue!



9.- **EBALUAZIOA**, irakasleen feedbackarekin batera:





# GENEROKO EBALUAZIO-ERRUBRIKA



	(0) GENERO DESBERDINTASUNA	(0.5) GENEROAREN ONDORIOZKO TENTSIOAK	(1) BERDINTASUNEZKO HARREMANETARAKO AHALMEN ONA	(2) GENERO-BERDINTASUNA ETA BIZIKIDETZA-ONA
<p><i>Bost galderak zenbakiz baloratzen dira, 0tik 2ra.</i></p> <p><b>1.- Nola osatu dira taldeak? Talde bereziak ala mistoak sortzen dituzte?</b></p>	<p>Erabat bereziak.</p>	<p>Orokorrean bereziak, gutxi batzuk mistoak.</p>	<p>Talde gehienak mistoak dira</p>	<p>Modu orekatuan osatzen dituzte taldeak..</p>
<p><b>2.- Nola banatzen dituzte rolak taldeen barruan?</b></p> <p><b>Arreta berezia eskaintzen diogu honi: Taldeetako bozeramaileetako zenbat dira neskek?</b></p>	<p>Neskek laguntza eta bitartekaritza lanak egiten dituzte, lidergo eta ordezkaritza lanak baino gehiago.</p> <p><b>Bat ere ez</b></p>	<p>Talde gehienetan, banaketak generoko joera du.</p> <p><b>% 30 inguru</b></p>	<p>Talde gehienetan, lanak eta rolak modu ekitatiboan banatu dira, baina ez guztietan.</p> <p><b>% 60 inguru</b></p>	<p>Rolak txandakatzen dituzte pertsona guztiak gaitasun desberdinak gara dituzaten (lidergoa, ordezkaritza, komunikazioa, etab.)</p> <p><b>% 60 baino gehiago</b></p>
<p><b>3.- Berdin baloratzen dira nesken eta mutilen premiak eta interesak lantaldeetan?</b></p>	<p>Nesken premiak eta interesak bigarren maila batean geratu ohi dira, haien ekarpenak gutxiesten dira edo ez zaie garrantzirik ematen talde lanaren garapenean.</p>	<p>Nesken premiak eta interesak entzuten omen dira, baina ez dira talde lanean aintzat hartzen edo jasotzen.</p>	<p>Nesken eta mutilen premiak eta interesak berdin entzuten omen dira, baina amaierako lanean mutilen iritziak nagusitzen dira, eta, hortaz, ez dira berdin baloratzen nesken ekarpenak.</p>	<p>Nesken eta mutilen premiak eta interesak entzuten, baloratzen, aintzat hartzen eta jasotzen dira, lanarekin duten koherentziaren arabera, generoaren arabera inolako desberdintasunik gabe.</p>
<p><b>4.- Generoaren arabera gatazka edo tentsiorik identifikatu duzu?</b></p>	<p>Errespetu faltak, mespretxuak edo diskriminazioak. Maiz, nesken edo edozein pertsonaren aurka ematen dira, baina irudiarri eta generoko estereotipoei lotuta ("maritxu", "mari-mutil", lodi, argal, etab.).</p>	<p>Tentsioak daude zentzu horretan, baina puntualak / ez dut identifikatzen generoarekin zerikusia duten.</p>	<p>Ez da ia tentsiorik izan eta, izan direnean, taldeak normaltasunez landu ditu.</p>	<p>Taldeak armonia ona du eta modu positiboan esku hartzeko gaitasuna garatu du generoaren ondorioz sor daitezkeen gatazkak erregulatzeko.</p>
<p><b>5.- Hitz egitean eteteak identifikatu al duzu?</b></p>	<p>Etengabe eten egin zaie, batez ere neskei.</p>	<p>Zenbaitetan eten egin zaie, batez ere neskei.</p>	<p>Ez zaio eten hitz egiten zuenari, eta eten zaionean ere ez da generoko joerarik ikusi.</p>	<p>Hitza errespetatzen dute eta besteen iritziak entzuten dituzte</p>

# TALDE-LANAREN EBALUAZIO ERRUBRIKA




	(0) OINARRIZKO TRESNAK BEHAR DITU	(0.5) HOBE DEZAKE	(1) GAI	(2) OSO GAI
<b>Bost galderak zenbakiz baloratzen dira, 0tik 2ra.</b>				
<b>1.- Talde-ianarekiko betetasuna</b>	Ez da gustura sentitu taldean lan egiten.	Gogo handirik gabe parte hartu du, baina modu egoki eta kolaboratiboan.	Eroso sentitu da talde lanean eta modu kolaboratiboan parte hartu ahal izan du.	Oso pozik egon da taldean eta modu kolaboratiboan lan egiteagatik.
<b>2.- Talde-ianak egitea</b>	Beti ez ditu egokitutako lanak egin, ez denboraren aldetik ez formaren aldetik. Lan giro txarra sortzen du eta taldekideak kritikatzan ditu baina ez ditu besteen kritikak onartzen.	Lanak gutxienekoa bermatuz egin ditu, baina gehiago inplikatu gabe. Ez du lan giro egokia sortzen laguntzen, eta normalean ez ditu besteen kritikak edo gomendioak onartzen.	Jarrera aktiboa izan du eta egokitu zaizkion eginkizunez arduratu da. Lan giro egokia sortzen laguntzen du eta besteen kritikak eta gomendioak onartu ohi ditu.	Jarrera positiboa eta proaktiboa izan du, bere gaitasunak taldeari eskainiz eta besteengandik ikasiz. Lan giro egokia sortzen laguntzen du eta besteen kritikak eta gomendioak onartzen ditu.
<b>3.- Norberaren ardura</b>	Ez ditu jarduerak egiten. Lanen plangintza kaotikoa da eta aurreikusitako denborak oso urriak.	Proposatu diren jardueretatik batzuk besterik ez ditu egin. Lanen plangintza eta denboraren antolakuntza hobe ditzake.	Jarduera gehienak egin ditu. Lanak eta horiek egiteko denbora ondo antolatzen ditu.	Egokitutako jarduera guztiak egin ditu. Oso ondo antolatzen ditu lanak eta modu efizientean antolatzen du denbora.
<b>4.- Lanen aurkezpena</b>	Aurkeztutako lanak nahasiak dira eta horien egitura eskasa. Akatsak ditu elikadura ereduaren azalpeneari.	Aurkeztutako lanak zuzenak dira, edukiek ez dute diziplinarteko ikuspegi bat eta genero ikuspegia atal bakar batean lantzen da. Elikadura burujabetzaren aldeko zenbait argudio ematen ditu.	Aurkeztutako lanak oso onak dira eta edukiak diziplinarteko ikuspegi batetik lantzen dira. Genero ikuspegia atal gutxitan aplikatzen da. Elikadura burujabetzaren aldeko argudio nahikoak ematen ditu.	Aurkeztutako lanak bikainak dira eta edukiak -genero ikuspegia txertatzen dutenak- diziplinarteko ikuspegi batetik lantzen ditu. Oso modu zehatzean argudiatzen du elikadura burujabetza eredu agroindustrialaren aurrean babesteko logika.







<b>Bost galderak zenbakiz baloratzen dira, 0tik 2ra.</b>	<b>(0) OINARRIZKO TRESNAK/BEHAR DITU</b>	<b>(0,5) HOBE DEZAKE</b>	<b>(1) GAI</b>	<b>(2) OSO GAI</b>
<b>5.- Jarrera eta balioak</b>	<p>Informazioa kritikoki aztertzeko zailtasunak ditu.</p> <p>Elikaduraren problematikari buruz lotutarik gabeko irakurketa partzialak egiten ditu.</p> <p>Ez da kontsumo ohituren eta gaur egungo osasun-, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-arazoan arteko lotura ulertzeko gai.</p> <p>Ez dago elikadura osasungarriago eta kontsumo arduratsuago baten aldeko aldaketarik egiteko prest.</p> <p>Ez du pertsona pobreekiko eta planetarekiko elkartasunik erakusten eta inuzkin desegokiak eta/edo errespeturik gabekoak egiten ditu.</p>	<p>Espiritu kritikoa gutxi du, duen informazioa errepikatze joera du.</p> <p>Landutako arazoa bere egunerokoarekin lotutako alderdietatik soilik lantzen du.</p> <p>Kontsumo ohituren eta gaur egungo osasun-, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-arazoan arteko lotura ezartze zailtasunak ditu.</p> <p>Elikaduran aldatetako egiteko prest dago, betiere orain arte izan duen elikadura-eredu ez osasungarria eta ez jasangarria baztertu behar ez badu.</p> <p>Elkartasun eta enpatia gutxi erakusten du aurkeztutako gizarte eta ingurumen arazoan aurrean.</p>	<p>Kritikoago da jaso duen informazioari esker.</p> <p>Aurkeztutako arazoa tokiko-global ikuspegi batetik baloratzen du.</p> <p>Kontsumo ohituren eta gaur egungo osasun-, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-arazoan arteko loturaz konturatzeko hasi da.</p> <p>Elikadura osasungarriago eta kontsumo arduratsuago baten aldeko zenbait aldaketa egiteko prest dago.</p> <p>Elkartasuna eta enpatia erakusten du inguruko egoerarekin eta planetaren zaintzarekin.</p>	<p>Kritikoago da jaso duen informazioari esker.</p> <p>Elikaduraren problematika lantzeko ikuspegi desberdinak baloratzen ditu eta tokiko-global dimentsioa kontuan hartzen du.</p> <p>Kontsumo ohituren eta gaur egungo osasun-, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte- arazoan arteko loturaz konturatzeko prest dago.</p> <p>Elkartasuna eta enpatia erakusten du gertuko zein urruneko egoerarekin eta planetaren zaintzarekin, kontsumoaren eta ingurumen- eta gizarte- inpaktuaren arteko lotura ulertzen baitu.</p>




# EZAGUTZEN EBALUAZIO ERRUBRIKA

(landutako moduluen eta ikasketaren emaitzen arabera)



<b>Bost galderak zenbakiz baloratzen dira, Oitik 2ra.</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	





## ALIMENTACIÓN SAREA

### ZER DA

**Hezkuntza formalaren** esparrutik sortutako ekimena da, gure elikadurari eta horrek ingurunean, osasunean eta pertsonen eta komunitateen bizi-baldintzetan duen eraginari buruz hausnartzeko ardatz gisa.

### NORTZUK OSATZEN DUGU

Bidezko Elikadurak, Hegoa Institutuak, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako zenbait ikastetxek, hirugarren sektoreko zenbait erakundek eta **Ekonomia Eraldatzaileen arloko hainbat enpresak** osatzen dugu sarea.

### GURE HELBURUA LANBIDE HEZIKETAN

Nekazaritza eta elikadura sistema osasungarri, bidezko, iraunkor eta irisgarri baten alde lan egingo duten profesionalak trebatzen laguntzea, **Elikadura Burujabetzan** eta elikadura eskubidean oinarrituta eta **genero eta jasangarritasun ikuspegiekin**.

### LOTURA DUTEN LANBIDE-ARLOAK

Batez ere, honako arlo hauetan lan egiten dugu: Nekazaritza, Elikagaien Industriak, Ostalaritza eta Turismoa, Osasungintza eta Gizarte eta Kultura Zerbitzuak.

## GURE PLANTEAMENDUAK

### **EKONOMIA ERALDATZAILEAK**

Ekonomia sozial eta solidarioaren, ekonomia feministaren edo ekonomia ekologikoaren ikuspegietan oinarritzen gara, horiek gizarte eta ekonomia eraldatu nahi baitute pertsonak, komunitatek eta ingurumena erdigunean jarritz.

### **ELIKADURA BURUJABETZA**

Gure ustez, herriok elikadura osasungarria, jasangarria eta kulturalki egokia izateko eskubidea dugu, baita gure elikagaiak nola produzituko ditugun erabakitzekeo eskubidea ere.

### **GENERO IKUSPEGIA**

Emakumeek elikadura sistema mantentzeko, elikadura hezkuntza emateko eta bizitza zaintzeko duten ezinbesteko rola bistaratzen dugu; ardurakidetzatza aldarrikatzen dugu eraldaketarako eredu gisa.

### **PEDAGOGIA KRITIKOA ETA ERALDATZAILEA**

Ikuspegi eta metodologia berritzaileak, non ikastetxeen eta ingurunearen arteko harremana ikasketaren oinarri den herritartasun parte-hartzailea, arduratsua eta kritikoa sortzeko.

## **HORIEK LANTZEKO PISTAK**

*Pentsatu al duzue zuen proposamenean nola txertatu Ekonomia Eraldatzaileak?*

*Berdin lan egiten da kooperatiba batean edo enpresa batean? Zer balore gehigarri eskaintzen ditu kooperatibak?*

*Elikadura Burujabetzaren ereduak haurrak ere elika ditzake?*

*Badago elikagai nahikorik mundu osoa elikatzeko?*

*Eragin berdina dute elikadura txarraren ondoriozko gaixotasunek sexu, genero eta gizarte-mailako aldagaiak kontuan hartzen baditugu?*

*Erronkan zehar publizitateak duen joera sexista identifikatu duzue?*

*Zonaldeko diagnostikoak balio izan dizue zuen esku-hartzea garatzeko?*

*Hurrekin egiteko jardueretan tresna sortzaileak eta kooperatiboak txertatu dira?*



## INFORMAZIO INTERESAGARRIA

[Haur Hezkuntzako Goi Mailako Gradurako  
baliabideak](#)


[Baratzearen baliabide didaktikoak](#)

[Ortua: askotariko proposamenak](#)

[Hamaiketako Osasungarria](#)

[Haur Hezkuntzako Eskola Ortua](#)

[Elkartuz-Encontrándonos Ikasketa eta Zerbitzu Proiektua](#)





# ALIMENTACIÓN

ELIKADURA-JASANGARRITASUNAREN ALDEKO HEZKUNTZA-SAREA

HAMAIKETAKO OSOSUNGARRIA: ELIKADURA ONA, ESKOLA JAKINTSUA